

28A
APIRILAREN

LANEKO SEGURTASUNAREN ETA
OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Manolito Rast amán... 2016

AMIANTO

GENOZIDIO ISILDUA

Lanaren Konfederakunde Nagusia

www.cgt-lkn.org
www.rojoynegro.info



“Bizitzaren eta lan osasunaren aurrean tratu ezberdintasuna: amiantoak kaltetutako ehun milaka pertsonaren genozidioa “isila”

NBERen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala mendebaldeko nazioetako konstituzio gehienek bere gain hartua eta ezarria dute. Eskubide horiek gizaki guztien oinarrizko eta ezin kenduzko eskubidetzat honakoak, besteak beste, hartzen dituzte: **bizitzarako eskubidea, lanerako eskubidea, osasunerako eskubidea eta etxebizitza duin baterako eskubidea.**

Dena den, egiaztatuta utzi nahi dugu konstituzioaren arabera aldarrikatutako berdintasuna ez dela existitzen: **ehunka pertsonak, ekoizpenaren eta banaketaren sektore guztietako langileek, hala nola biztanle gehienek, beren osasuna kaltetu eta hondatu duten tratu “kriminal” eta aurretik planifikatua jasan dute, AMIANTO bezalako produktu hiltzaile batekin lan eta koexistitu dutelako.**

Enpresariak eta instituzio publikoak jakin bazekiten, ederki asko, joan den mendeko 40ko hamarkadatik, AMIANTOA arriskutsua zela eta gaixotasun larriak eragingo zituela eta eragiten dituela. Gaixotasun larriak, sarritan heriotza dakartenak, eta, era planifikatuan batean, Espainiako Estatuak 2002 urtera arte baimendua, ekoizpen-gai merkea baitzen. Bost axola zitzairen milioika pertsonaren oinarrizko eskubideen ondorioak, bizitan nahiz osasunean

Berdintasun-eza ezbehar, oinaze eta heriotza kopuruetan ere neurtzen da. Langileen eskubideak babestea ukatu ezinezko betebeharra da, enpresariak eta Administrazio Publikoak bete behar dutena, alegia.

Babesteko betebeharraren galera sortu zen, hain zuzen ere Administrazio Publikoak onartu zutenean -eta oraindik ere onartzen dute- enpresariak langileen eskubideen lan-legeria ez betetzea. Era berean, bere garaian onartu zuten- eta onartzen dute- Merkatuak eta horko merkatariak gure etxebizitzetan produktuak erabiltzea,

eguneroko bizitzaren ohiko elementuak direnak (berotze sistema, aire egokitua, ur-berogailua eta abar eta abar), baina osasun fisiko eta ingurumen-osasun txarra izatera eramaten gaituztenak. Hori guztia aberats, boteretsu eta plutokrata gutxi batzuen mesederako izaten da, bizitzaren gizarte-oinarriak, ekonomikoak eta ingurumenekoak

kaltetzen, eta, agian, suntsitzen dituen lehiakortasun baten izenean.

Babes-sarea eraitsi dutenez inpunitateak lan-harremanak arautzen ditu eta gizarte-harremanetara ere zabaldu da. Oinarrizko giza eskubideen aurkako indarkeria bizitzaren eta egunerokoaren “logika normalizat” hartzen da.

Hori guztia gertatzen da, ez bakarrik oligarkien, boteretsuen eta horien ordezkari politikoen arteko “itun historikoa” gatik, baita behekoek, gutxietsiek, ere ez dutelako borrokarik egiten. Egoera horrek ahalbideratzen du inpunitatea eta oinazea, heriotza eta oinarrizko giza eskubideekiko mesprezua ikusezin bihurtzea.

CGTrentzat, EGIA berreskuratzea, hau da, Instituzioen agenda politikoaren gai-zerrendan jartzea merkantziak ekoiztu eta banatu direla milioika pertsona kaltetu dituen osagarri batekin. Izan ere, jakina zen eta denez, AMIANTOarena, ezinbesteko urratsa da Enpresariak eta Instituzio Publikoak INPUTATUAK izateko eta erantzukizun zibilak, penalak eta administratiboak bere gain har ditzaten.

Eta, horrez gain, ERAGINDAKO KALTEA ERREPARATU DEZATELA, AMIANTOarekin lan egin eta bera sufritu dugunoi, gaur egun dauden baliabide onenekin osasuna zaindu eta babesteko lehentasunezko tratua izateko eskubidea dugula onartzuz. Eta, halaber, eragindako kaltea ORDAIN DEZATELA eta jubilatzekeo garaian biztanle horientzat guztientzat, era orokor batean, koefiziente murriztaileak onar ditzatela.

“Merkatuaren Legeak” eskubideak eta bizitzak txikitzen dituen makina batek bezala funtzionatzen du. Horregatik, “Lege” horrek eragiten dituen heriotzek, gaixotasunek eta istripuek arduradunak dituzte, hau da, izen-abizenak dituztenak dira: enpresariak, eta horien gerenteak eta zuzendariak, eta politikariak eta legelariak.

JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA eta ARDURADUNENTZAT ZIGORRA



LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA

www.cgt-lkn.org

www.rojoynegro.info